

IDEIAREN DESKRIBAPENA



Guk, Euskal Herriko enpresa txiki batek, eskuz eginiko produktu natural eta ekologikoa izango den, lepoko bat proposatzen dugu. Hau, batez ere emakumeentzat bideratuta dago, haien segurtasuna bermatzeko. Kanean doazela inolako arazorik izan ezker, honek izango duen botoia klikatu eta non, noiz eta zer duen jakin ahal izango dugu lagundu ahal izateko. Klik egin eta jarraian, giza talde batek informazio guztia bilduta duela, pertsona horri laguntzeko kanpaina abian jarriko da. Erantzuna jaso bezain laster, segurtasun talde bat abiatuko da pertsona hori aurkitzen den lekura, ondoren, gure bitartekariak hertzainekin edo beharrezkoa den segurtasun taldearekin jarriko da kontaktuan ezinbestean. Horrez gain, bigarren aldiz klikatuz gero, lepokoa, soinu baten bidez adieraziko den alarma bat martxan jarriko da ingurukoak egoeraz ohartarazteko eta pertsona horri lagundu ahal izateko. Izan ere, guk bidalitako laguntzak tokira iristeko arazoak izaten baditu beste modu bat eskeini behar dugu pertsona horrek behar duen laguntza jasotzeko. Produktu hau, aukera ona izan daiteke estu eta larri aurkitzen den pertsona horrentzat, laguntza gehiago eskuratu ahal izateko.

Bestalde, herri bakoitzean, pertsona talde bat egongo da 24h- an zehar laguntza lanetan, laguntza psikologikoa nahiz fisikoa emanaz. Lepokoak, guztiz pertsonalizatuak izango dira, erasotzaileak edo arazoaren gauzatzailleak hauteman ez dezan. Beste alde batetik, lepokoak mikrofono bat txertatuta edukiko du, non botoia sakatu ezker, aktibatu egingo da guk pertsonaren egoeraren informazio guztia edukitzeko, kokapena eta egoera psikologikoa barne.

Aitzitik, materialari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu naturala eta ingurukoa izatea. Aldaketa klimatikoa egungo arazo oso larria izanik, ezinbestekoa delako guretzat horri aurre egiten esku hartzea. Horrekin batez ere produktu ekologikoz eginiko objektuak izango direla helarazi nahi dugu. Gure ezaugarrietatik aipagarriena dela esan daiteke, gure proiektuaren ongizatean eta etorkizunean pentsatuta ere geroan eta gizartearen egoera kontuan hartzen dugulako. Hori gutxi balitz, erabilitako material jasagarria erabiliz gain, garraio bidez bidaliko den produktua biltzeko erabiliko den materiala, mota berekoa izango da, hau da naturala, beti ingurunea zainduz.